

**ERABAKIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, horren bidez, BILBOKO INGENIARITZA ESKOLARako F 1352 Administrari orokorra lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia hutsik geratuko dela adierazteko dena.**

### GERTAKARIAK

**Lehenengoa.-** Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2024ko uztailaren 12ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Gerentearen erabakiaren bidez, 2024ko irailaren 6koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen onartutako lehiakiderik gabe.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 35/2015 Legea (2015eko urriaren 2ko EHAAan argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.-** Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena hartutako 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAAan).

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

### ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Erabaki honen eranskinean zehasten den lanpostua betetzeko prozedura amaitutzak jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Hirugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea, dagozkion Zerbitzuko Buruari edo Administrazioarengana. Har beza kontuan AZPkoen Atalak.

**Laugarrena.-** Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarengana auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarengana auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

**Sin./Fdo.:** Juan José Unzilla Galán  
Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordea  
Vicerrector de Transformación Digital y Comunicación.

*Gerentzia hutsik geratzeagatik, gobernu-taldearen ordezkapen-araubidearen aldaketa partzialaren UPV/EHUko errektorearen, 2023ko urtarrilaren 31ko Ebazpenarekin bat etorrita (2023ko otsailaren 8ko EHAA).*

*Por vacancia de la Gerencia conforme a la Resolución de 31 de enero de 2023, de la Rectora de la UPV/EHU, sobre modificación parcial del régimen de suplencias de su equipo de gobierno (BOPV de 8 de febrero de 2023).*

**I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA 2024/07/12**

---

**Lanpostuaren Izena:** Administrari orokorra  
**Lanaldia:** Arautua  
**Eref.:** F 1352  
**Zenbatgarrena:** 48  
**Maila:** 18  
**Taldea:** C/D  
**REskala:** Administraria/Administrari laguntzailea  
**H.E.:** 2; 2022ko maiatzaren 31  
**Langunea:** BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA  
**Campus:** BIZKAIA  
**BE:** Ingelesa jakitea (C1 Maila)  
**Ondorio data:**